

uztarria

|||Azpeitiko herri aldizkaria |||2012ko otsaila |||136. zenbakia |||xvii |||



TAULA GAINEAN JOLASEAN

Eszenatoki gainean bizi izateko ametsa beteta, buru-belarri dabil Madrilgo 'Cantajuego' ekimenarekin, Ainhoa Abaunz 04

ESKAINITZA BEREZIA



799 euro

Test zorrotzenek 20 urteko iraupena ziurtatzen dioten garbigailua.

Miele

Aukeratu kalitatea. Aukeratu Miele



IKUS ITZAZU GURE ERAKUSKETAN. LIBURUTEGI ONDOAN

Milar Larramendi · Xabier Munibe, 11 · Julio Urkijo, 16 · Azkoitia · Tel. 943 85 18 97

uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria
 Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea,
 (Azpeitia, 20730)
Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa.
 uztarrria@topagunea.com
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 136.a (2012ko otsaila)
Urtea. XIII.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta
 Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685 730792 /
 oalegria@uztarrria.com
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hilerro
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. Cantajuego
Web orrialdea.
www.uztarrria.com

Uztarrria herri aldizkariaren laguntzaileak (erakunde publikoak)




Uztarririk Bai Euskarari Oharra. Uztarrria Komunikazio Taldeak ez du bere gain hartzen herri aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik

2012KO OTSAILEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER? ||||||||||||



mamia
Klik! Zaletasuna lanbide bihurtzea lortu eta argazki kazetaritzan dihardu Ainara arciak **16**
Disko jartzaileak. Txanpiñoiak bezala zabaldu dira, talde 'konbentzionalei' itzala egiteraino **20**
Herria abordatzera! Astelehen Karnabalean, helduak umeen pare **24**



jakiteko
Atzera begira. Esther Larrañagaren hamazazpi urteko ibilbide politikoa gogora ekarriz **34**
Hi heu! Idoia Egiguren, bisurtean jaiotzearen inguruan solasean **34**

Ba aL dakizu danborradako karrozan keixetarena egitea keixeta beraren birbiLoba bati tokatu zitzaiola? **Uztarrria**

egin zaitez bazkide Uztarrrian **943 15 03 58**

Herri aldizkariak gain, Uztarrriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **12 liburu** (behekoak), **CD 1** (ondokoa) eta liburuxka biografikoak atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



1.060 bazkide **30** euro dira urtean. **gara** dagoeneko Uztarrrian; 117.010 euroko aurrekontua du eskerrik asko denei. Uztarrria 2012. urterako.



Liburuxka biografikoak. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Berqara

AINHOA ABAUNZ

artista

“Printzipioekin hezi behar ditugu umeak”

Hasi besterik egin ez den ametsa “bete-betea gozatu” nahi du. Sormena, fantasia eta koloreen bidez baloreak umeei transmititzea du helburu. 📧📞 Ainitze Agirrezabala

Norbere buruan sinestu eta gogor saiatzea bezalakorik ez dago ametsak betetzeko. Gabonetan Madrilgo ‘Cantajuego’ ekimenarekin Espainia osoan biran ibili ostean, Ainhoa Abaunz Azpeitian da, atsedena hartuz egun batzuk pasatzera etorrita.

Taula gainean eroso sentitzen ez zareneik, behintzat, ezin esan.

Betidantik izan dut eszenatokian aritzeko ametsa, kantuan, dantzatan edota antzeztan. Amak ere artearekiko zaletasuna du, eta herrian ziren aukera guztietara animatu izan nau txikitatik. Ez dut arte dramatiko ikasketarik, batxilergoan irakasleek gogor animatu arren. Arte munduaren ezegon-

kortasuna eta honetatik bizi ahal izatea ezinezkoa ez, baina gogorra dela pentsatuta, atzerriko hizkuntzako magisteritzan diplomatu nintzen, Eskoriatzan. Unibertsitatean joan arren, artistikoki prestatzen jarraitu nuen.

Herria utzi eta kanpora joateko erabakia nolatan hartu zenuen?

Gero eta garbiago nuen honetatik egin nahi nuela aurrera. Ikasketak bukatu ostean, Londresera joan nintzen, ingeles ikasketak jarraitu eta Musical Theatre ikastaroan prestatzeko. Emozionalki, beste ezerekin baino gehiago, beteta sentitu nintzen, zoriotsu nintzen. Irakasle lanetan sartuz gero, banekien ez nintzela herritik aterako, eta formakuntza aldetik,

|||DATUAK|||||

|||**Jaio.** 1986ko ekainak 20.

|||**Herria.** Azpeitia. |||**Bizitokia.** Madril. |||**Lanbidea.** Artista.

artistikoki gehiago behar nuen. Horretarako adina ere banuen, eta Londrestik Azpeitira itzultzean, familiak eta lagun batzuek bultzata, Madrilera joan nintzen, Teatro Musical ikasketak egitera.

Kanpora ateratzera behartuta zaudete?

‘Behartuta’ ez dut uste denik hitza, ‘irekita’ esango nuke nik. Herrian izan badira aukerak, ikastaroei dagokienean, baita profesionalki ere. Azpeitia aberatsa da antzerkigintzan. Baina etxetik kanpo ere aukera interesgarri asko aurki genitzazke; beraz, aukera izanez gero prest egon

behar genuke haietatik ikasteko. Laburbilduz, bi bide ditugu: bertan geratu eta disfrutatu dugunaz, edota beldurra kendu, daki-guna mundura zabaldu eta berria dena ezagutu eta bereganatu!

Azpeitiko Emakumeen Antzerki Tailerrea ibilia zara. Zer oroitzapen duzu?

Maitasun handiz gogoratzen ditut saio haiek. Antzerkia talde lana da, konpromiso eta emozioen etengabeko hartu-emana. Sorreratik izan nintzen taldeko parte, lau-bost urtean, Londresera joan nintzen arte. Pertsonalki oso aberasgarria izan zen; interpretazio nozioak ikasteaz gain, autoestimari dagokienean, lan polita egiten da antzerkian: norbera ezagutzen, onartzen, baloratzen eta



maitatzen ikasten da, norbere indar eta ahul guneekin. Besteen bizipenetatik ere asko ikasten da: nerabe eta amona, denok batera osatzen genuen taldea, eta zoragarria da aukera hori izatea. Hiri handietan hori oso zaila da, beraz, herri txikietan halako taldeak izatea baloratu behar da.

‘Cantajuego’ proiektuan buru-belarri zabiltza. Nondik nora ezagutu zenuen ekimen hori?

Interneteko kastingen web orri batetan izan nuen taldearen berri; jendearen bila zebiltzan, baina ikuskizun baterako soilik. Ondoren, afaltzera irten nintzen, eta zer ikusiko-eta ‘Cantajuego’ kartel erraldoi bat Kirol Jauregian zintzilik, han antzeztan zutela-eta. Hainbeste jende biltzen zuen leku batean antzezteko zerbaite handia izan behar zuela eta talde haren nondik norakoak jakiteko informazioa bilatu nuen Interneten. Proiektua ikaragarri gustatu zitzaidan. Alderdi pedagogikoan ikasketak izateaz gain, eskatzen zituzten ezagutza artistikoak ere banituen. Hala, hurrengo goizean izena emateko deitu nuen. Zoritarrez, kastinga egiteko lekuri ez zutela esan zidaten, baina kurrikuluma bidaltzeko, hurrengo froga batetarako. Zortea beste behin ere nire alde zegoen, ordea, eta kurrikuluma ikustean deitu egin zidaten, ikusi egin nahi nindutela esanaz. Bihozkada bat nuen, lan hura nirea zela, eta kastingaren egunean bertan lan finko bati ezetza eman nion, froga egin

ahal izateko. Frogak eta elkarrizketa arazorik gabe gainditu nituen, eta Gabonetako bira guztia eskaini eta materiala eman zidaten etxean lantzen hasteko. Handik aurrera, pixkanaka proiektuaren parte izaten hasi nintzen, duela bi urte inguru.

Proiektuaren helburua umeen psikomotrizitatea estimulatzea eta zentzumenak garatzea dela diozue zuen webgunean. Nola lortzen da hori?

Horrez gain, haurren ongizate, autoestima eta erlazio sozialak bultzatzea bilatzen da, imaginazioaren, koloreen eta fantasiaren bidez. Jadanik umeen artean ezagunak dira Pepe asto arroxak, Coco krokodiloa, Buby katagorria eta Tallarin pailazoa. Urtean hainbat alditan aldatzen dugu ikuskizuna, eta hori motibazio iturri handia da guretzat. Era berean, DVD berriak grabatzen ditugu, kantu popularrekin –*los pajarritos, la yenka, Heidi...*– eta bertsiopropioekin. Gabonak eta uda dira urteko sasoriki gogorrenak, umeek oporraldi luzeak orduan dituzte. Halere, urte osoan dugu zeregina. Kontutan izan behar da proiektu hau 0 eta 6 urteko haurrei zuzendua dagoela. 1994. urtean kaleratu zen lehen DVD+CD merkatura, eta ahoz aho haurtzandegi eta eskoletara iritsi zen material didaktiko gisa. Lortutako arrakastaren ondoren, etxeetan sartu zen, familian galtzen ari zen haurren heziketa berreskuratzeko modu bat ere bazela konturatu baitziren. Eskaera urteetan handituz joan da: salmentek 800.000 kopia gainditu dituzte eta 12 DVD+CD ditugu merkaturatzen. Sony Music ere proiektuan elkarlanean dugu eta 2010etik nazioartera ireki ditu ateak proiektuak, Mexikora eta Italiara. ‘Cantajuego’ taldea dibertsitatearen adibide garbia da. Abeslariak, dantzariak, aktoreak eta akrobatik gaude taldean, eta guztiok espezialistak gara psikopedagogian. Horregatik, ikuskizunez ▶

“Emozionalki beteta sentitu nintzen, beste ezerk baino gehiago”

“Norbera maitatzen ikasten da, norbere indar eta ahulguneekin”

gain, ospitaleetara ere bisitak egiten ditugu, gaixo dauden eta kalera irtetzeko aukerarik ez duten umeekin jolas egiteko. UNICEF-ekin ere konpromisoa dugu eta elkarlana dihardugu. Beraz, hau ez da eszenatokietan hasi eta amaitzen den lan bat; harantzago doa, inplikazio pertsonal handiagoa eskatzen du. Hori da proiektuaren majia. Pedro Zaidman zuzendari argentinarraren gidaritzapean, 25 eta 40 urte bitartean, jatorri ezberdineko zortzi lagun gara taula gainean, baina beste hainbat pertsonen esfortzua eta lana dago atzetik. Profesionalki artista bikainez inguratuta banago, pertsona bezala zoragarriak dira.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak Euskal Herrian egiten ari diren lanarekin alderatuko genuke 'Cantajuego' proiektua?

Horiek ere musika eta abestiz jositako DVDak merkaturatzen dituzte, hainbat balore bultzatuz: aniztasuna, berdintasuna eta elkarbizitza. Gu geuk ere balore horiekin lan egiten dugu, errespetuan eta tolerantzian oinarritutako mundu bat sustatu eta gizaki bezala hezteko. Tresna didaktioei dagokienez ere, biek nahikoa elementu dituzte umeen eskura salgai: jostailuak, panpinak, ipuinak... Baina bada zerbait ezberdintzen gaituena. Badirudi euskal

pailazoentzat proiektua baloreen transmisioan soilik oinarritzen dela. Guk, ordea, balore horiek zabaltzeaz gain, alderdi psikomotritzitatea eta zentzumenak ere landu nahi ditugu. Horretarako, haurrek erraz imitatu, errepikatu eta ikasteko mugimenduak proposatzen dituzte gure DVDetako abestiek, gainontzeko haurrekin eta gurekin jolasteko. Umeak zaindu, maite eta printzipioekin hezi behar ditugu, horiek dira gure poza, gure etorkizuna.

Zer moduz Madrilgo bizimoduak?

Erdigunean bizi naiz, beste bi lagunekin, alokairuan. Egia esan, lana eta bidaiak medio, denbora libre gutxi dut, azkenaldian. Baditut lagunak Madrilan, eta eurak dira hango nire familia eta babesa. Ahal dudan guztietan beraiekin geratzen naiz deskonektatu eta barre batzuk egiteko. Bizi erritmoak ez du asko laguntzen horretan, eta eguntxo batzuk libre baditut Azpeitira etortzea gustatzen zait. Madrilak, bestalde, kulturalki abaniko zabala eskaintzen du. Familiakoak eta lagunak ere etortzen zaizkit bisitan. Zorutzen egoten naiz, norbait noiz etorriko. Amama Juanita goraiapatu nahiko nuke, 79 urterekin hor baitabil sa-soiko batetik bestera bueltaka, ni ikusi nahian. Azkena Santaderren izan ziren, gabonetako ikuskizuna ikusten. Naizena beraiei zor diet.



Ainhoa Abaunz Buby katagorriarekin dantzan eta jolasean. || Cantajuego

Gertu edo urruti, beti daude hor babesa ematen.

Telebistarako edo zinemarako jauzia ematea gustatuko al litzaizuke?

Artista batek beti du egonezina eta gogoaz hazten joateko. Nola ez, pantailara iristea aurrerapauso handia litzateke. Dena den, dagoeneko telebistan egin ditut hainbat agerraldi –*Vaya Semanita* sketch musikalak eta thriller iragarkia; *Kupela*-ren omenaldietan; *Dantzaki7* lehiaketan; *Goazen* telesail musikalean...– eta atsegin zait. Azken hilabeteetan, Cantajuegorekin telebistako hainbat programetan hartu dugu parte: Telecincon Gabon Zaharreko gaueko programan, esaterako. Guretzat oso garrantzitsua da haurrekin dugun hartu-eman

zuzena. Hori da gure lanaren beste alderdi magiko eta polit bat, telebistarekin edota zinemarekin lortu ezin dena.

Etorri behar duena etorriko da, baina Azpeitira itzultzeko asmorik bai?

Gaur hemen gaude, baina gero, bihar... batek daki. Zoriontsu naiz nagoen lekuan eta daukadanarekin, eta disfrutatu egin nahi dut momentua. Amets hau hasi besterik ez da egin; beraz, oraindik, abentura gehienak bidean edo iristeko izango dira. Hainbeste kostatuko zerbait, benetan gustuko dudana, lortu badut, ez diot ez hain erraz alde egiten utziko. Bizitzak eskaintzen dizkidan aukera guztiak ongietorriak izango dira eta nire etorkizuna Azpeitia bada, ba zoragarri! ✨

 horzkari
hartz osasun klinika

iberotarren plaza 4 behea
20730 azpeitia gipuzkoa
t. 943 81 44 50 • f. 943 81 50 52
www.grupohorzkari.com

Servicios
con calidad

AENOR



Servicio
Certificado

Atención sanitaria

Osasun Arreta Ziurtagiria duen Euskal Herriko
lehenengo hartz klinika

Eltzearen pisua

Behin baino gehiagotan ziur denok izan dugula aukera gure herriko armarrarian erreparatzeko. Bertan bi otso ikusi ahal ditugu erdiko eltzea eusten. Eltzeak Erdi Aroan aberastasunaren ikur ziren eta otsoek loiolatarren familiari egiten diote erreferentzia. Inork ez zion galdetuko beharbada bere buruari zer izan dezakeen eltze horrek bere barruan, baina garbi dago bi otsoek oso zelatatsu gordetzen dutela bere edukia. Eltze horrek zer gordeko ote du? Zenbat pisatuko ote du? Paralelotasun antzeko bat ezarriz esan dezakegu eltze horrek guk herri bezala daukagun mamia gordetzen duela. Gainera, ez duzue uste badela garaia eltze hori eustearen ardura denon artean partekatzeke?

Sinbologia hau abiapuntutzat hartuz herria aurrera ateratzeko ardura denona dela mahai gainean dagoela uste dut. Batik bat Azpeitiko Udalak abian jarri duenetik "Denon Artean" ekimenaren ildotik. Abenduan alkateak aurkeztu zuen ekimenak gauzaperen bat izan du ekimen desberdinen bitartez (Urola ibaiko bazterrak garbitzekoa, adibidez) eta dirudie-nez harrera ona izaten ari da.

Historiaren abiapuntuetara begirada bat botatzen badugu ikus dezakegu nola jada Paleolitoan denon artean banatzen zituzten tribuko ardurak. Neolitoan jada lanaren espezializazioa hasiko da eta bakoitzak bere ardura zehatza izango du. Antzinako Grezian, aldiz, herriaren gobernuaren teoria garatuko da eta gaur egun gehiengoaren gobernuan eta gutxiengoaren eskubideen sistema bat garatu dugu.

Historiak ematen dizkigun irakaspen guztiak uztartuz iritsi gaitzke lehenago aipamena egin diodan eltze horren pisua denon artean eramatera. Ez da nolana hikoia erronka, baina gutziz beharrezkoa da denon arazoei konponbideak emateko. Gizarteak beti izan du mesfidantza besteekiko egindakoa neurterako garaian, baina ezinbestekoa da eltzearen bustitzea arazoei jabetzeko.



|||||||markel mendizabal|||||||


|||Inork ez zion galdetuko beharbada bere buruari zer izan dezakeen eltze horrek bere barruan

Zer konponbide emango edo proposatuko ditugu ez baditugu gure herriko arazoak eza-gutzen? Udalak du ardura arazoak kudeatzeko, baina plazaratzea beharrezkoa da denon partehartzeaz herri hobea gauzatzeko.

Herrigintza aktiboa

Anglosaxoiek *empowerment* deitzen diote herritarrek arazo publikoen kudeaketan ardurara gehiago hartzeko prozesuari. Hain handinahikoa izan gabe posible da pausoz pauso dinamika berri bat martxan jartzea. Helburu nagusia jendearengan parte-hartzeko grina piztea izan behar du. Ekimen konkretuak eta sinpleak baina erakargarriak. Hasierako dinamika gainera garrantzitsua izango da ekimenaren arrakasta finkatzeko. Arlo asko eta asko daude herritarrek bere parte-hartzearekin eraldatu ditzaketenak.

Ea ba etorkizuneko herria denon artean eraikitzeko gai garen, politiko hutsean erori gabe eta benetan gure herriak dituen erronkei erantzunez. Gustagarria litzateke herriko armarrarian agertzen den eltzearen edukia eta pisua denon artean eramateko gai bagina. Denon onerako izango da eta ziur etorkizuneko belaunaldiek eskertuko digutela. Herria denon artean egitera, badago premia eta!*



Ereduen krisia

Hitz izarra da azken bolaran krisia. Nahiz eta krisi ekonomikoak irabazi azken urteotako albistegi nagusienak, badira beste hainbat eta hainbat krisi ere. Azken finean, eredu batek egin du huts, eta eredu horretako oinarria erori ostean, hark zekarren guztia dago krisian.

Dena estaltzen da krisi ekonomikoarekin. Dirurik ez badago ezin da ezer egin. Dirurik ez badakar, ez du pena merezi. Dena da makroa. Mikroak zor ekonomikoa dakar. Baina makro hori beti dago eredu jakin batekin lotuta.

Baina ez nator hona ekonomiaz hitz egitera, ereduez baizik. Ez zaizkit makro kontzertuak gustatzen, orokorrean behintzat. Musika lasai gozatzea gustatzen zait. Tarteka kontzerturen batera edo bestera joateak auzten nau. Ez zait gustatzen urtean behin makro kontzertu horietako batera joan, eta 8 kontzertu bat bestearen atzetik kontsumitzea.

Gauza bera gertatzen zait beste hainbat kultur espresioarekin ere.

Zinema ere krisi

Eta zinea ere krisian dago. Azpeitiko zine kluba ere krisian dago. Soreasu ere krisian dago. Bai krisian gaude. Defizitarioak gara, noski; zinema orokorrean den bezala. Soreasu den bezala. Ez ditugu, Hollywood-eko ereduak atsegin. Ez dut uste inoiz Soreasu beteko dugunik. Gure filmetan ez dizute esaten zer sentitu behar duzun, ez dizute dena egin dela ematen. Zuk atera behar dituzu ondorioak. Zure ondorioak.

Txiki-txikitatik sinestarazi digute gure bizitzan printze urdin bat agertuko zaigula. Ederra. Gure parekoa. Zoriontsu egingo gaituela. Hori ikusi baitugu filmetan, serietan, marrazki bizidunetan... Bizitza gozoa eta erraza dela sinestarazi digute. Festa konstante bat.

Eta hori nahi ez duenak, zer ikusi dezake Azpeitian? Zine kluba (martxora arte behin-



ihintza agirretxe

Eredu batek egin du huts, eta eredu horretako oinarria erori ostean, hark zekarren guztia dago krisian

tzat bai). 1976. urtetik da abian herriko zine kluba. Aurretik, hala ere, Oargi eta Bengoitak ere aritu ziren herriari zine emanaldiak eskaintzen. Garai zailenetan ere izan du indarra herrian. Gainera, 70 eta 80. hamarkadan, zinema eskaintzetik zinema egitera pasatu ziren. Talde ekintzailea izan zen benetan hura.

Baina orain... Orain ez ei dago dirurik zine independente eta ez komertziala botatzeko. Ez eskaintza zabala egiteko, behintzat. Hala ere, film eredu bakarreko horietarako bai, ordea.

Soreasu egiteko izan da dirua. Atera da atera behar zen lekutik, gero han zer eskainiko den arrastorik jakin gabe. Edo oraindik eta areago, han zerbait eskaintzeko dirurik izango ote den aztertu gabe. Eta orain lanak. Kultura ia beti da defizitarioa ekonomikoki. Baina bada garaia konturatzeko herritarroei zer eskaintzen digun kulturak, zinemak. Ereduak, azken finean kulturak ere ereduak eskaintzen dizkigu.

Niri eredu ezberdinak ikusi, sentitu

eta sumatzea gustatzen zait. Ondoren, denen artean, nirekin bat egiten duena osatzeko.*



urrategideko

altzariak & sukaldeak



círculo
muebles



- Sukaldeak
- Sofak
- Hurren logelak
- Armairuak
- Egongelak
- Koltxoiak
- Logelak
- Bainuak



1. SOLAIRUAN GAUDE

ARRETXE KALEA 9 - 1. SOLAIRUA
20730 AZPEITIA (GIPUZKOA)
TEL. 943 85 72 44 · FAX. 943 85 13 14
urrategideko@urrategi.eu
www.mueblesurrategi.es



Gizontasuna eta laxoak



txetxu urbietak

Lege zaharreko seme izatetik senar eta aita moderno izaterako bidaian urperatzeko arriskurik ez duen kruzerotzat daukat neure burua. Ezkondu nintzen egunerarte etxean kolpe zorrik jo ez genuen horietako bat izan naiz ni ere. Jakanekoraino joan, Pepita, Juanita eta Sabina agurtuz beraien egunkaria irakurri, eta ogia erostera mugatzen zen nire etxeko zeregina.

Ezkontzearekin batera seme matxista hura senar moderno bilakatzen hasi zen. Gizonak eta emakumeak, denok, berdinak edo antzekoak ginela ulertzen hasi nintzen, bai

eskubideetan, bai bete-beharretan. Burua, borondatea eta beharra XXI. mendeko gizon eredugarria izateko. Plantxa egitea kenduta, etxeko lan gehientsuenak egiteko gai izatera heldu da, 'betirako' esan zuen egunerarte ohe bakar bat egin ez zuen gibelaundi hau.

Aitortu beharra dut, senar moderno izateko egin beharreko urratsa gogorra izan da, buru barruan kable eta fusible dezente aldatu behar izan dut. Urrats hori emanda, aita moderno izateko beharrezkoa den bigarren urratsa erraza izan da. Bikoteko kide bakoitzak

ahal duena eman etxeko gurdiak aurrera egin dezan.

Lege zaharreko seme batentzat, ordea, bi alaba ile-luzedun izateak badakar gaindiezina den malda. Saiatu arren, eta benetan diotsuet ahalegintzen naizela, bi alaben melenak garbitu, sekatu eta orraztea torturatik gertu dagoen eguneroko zeregina da niretzat. Ileapaintzaileei nire miresmena. Eta laxoak egitearena... hori "misión imposible"-tzat daukat. Etsi dut. Perfekzio hori hurrengo belaunaldikoentzat utziko dut.✘

IKUSTEKOA!



▲ ESTALI GABEKO IGERILEKU BERRIA?

Udal ordezkari politikoek zinta noiz moztuko zain daude herritar asko eta asko, egun gutxi barru Etxebeltz-Izarrako lurretan inauguratuko den igerilekuan bainatzeko. Putzuari begiratuta, pistinaren inguruan belar artifiziala eta dutxak jartzea baino ez dela falta dirudi... Txantxak alde batera utzita, bukatu gabeko lanek utzitako irudia dugu 'igerilekuarena'. 🗨️ Uztarria ✘

BATXILERGOA EGIN NAHI?

zatoz ikastolara

www.azpeitikoikastola.com - 943 15 12 46

azpeitiko
ikastola
ikasberrikoop.e.

UNIBERTSITATERAKO ATE GUZTIAK ZABALIK

1-ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIAKO BATXILERGOA

2-GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIETAKO BATXILERGOA

Ordutegia batxilergoan?
08:30etatik 14:50ak arte.
Arratsaldeak lanerako.
Autobusez noa eta
jangelan geratuko naiz!!

JUNE

EGA eta selektibitatea
denok gainditu ditugu.
Emaizta borobilak!!
Eskerrak irakaslearekin
arratsaldetan geratu
naizen liburutegian!!

JON

Biharko tutoretza Europako
bidaia prestatzeko eta
ondoren laborategiko
praktikak. Ordenagailu
txikiekin IKASYS ere
badaukagu eta gainera
blog bat egin behar dugu.
Biharkoa egun bete!!
Arratsaldean liburutegian
geratuko naiz aurreratzeke.

IRAITZ

azpeitiko
ikastola

ikasberrikoop.e.



ikastolenelkartea

Informazio gehiago
www.azpeitikoikastola.com
tel: 943 15 12 46
ikasberri@ikastola.net

- Orik 18 urte arteko eskaintza integrala
- 07:30etatik 19:30etara
- Euskal kultura eta ikaslea oinarri
- Kooperatiba, partehartzailea
- Jangela eta garraio zerbitzu propioa
- Haurraren beharretara egokitutako hezkuntza
- Eleanitz, IKASYS, XIBA proiektuekin lanean
- Ikasmaterial propioa. Urtxintxa, Txanela, Ostadar
- Ikaslearen banakako jarraipena



MATRIKULA EPEA ZABALIK
URTARRILAREN 30etik OTSAILAREN 10era
ZATOZ IKASTOLA EZAGUTZERA!!!

URTARRILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



Bagera... Gu ere bai...

DANBORRADA. Beste urte batez, urtarril hasieran Gabonen ajea pasatu gabe, Azpeitian berriro danborrak kalera atera dira. Zaharrak berriro dira eta guztiak elegante jantzita kalera atera. Geroz eta herrikoia goak direla esan dezakegu, izan ere, geroz eta herritar gehiagok hartzen dute parte bertan. Gainera, aipatu behar, ibilbidea berreskuratzeak sekulako mesedea egin diola. Aurreko urteko zapore garratza gozaten lagundu baitu.



Inoiz ez da beranduegi

IMANOL ELIAS. Urteetan, isilpean lan asko egin du. Urte guzti horietan egindakoari ez omen dio meriturik bilatzen berak. Bai besteok, ordea. Orain, berandu baino lehen, gure herriaren kulturaren alde egindako guztia aitortu zaio. Lehenik ohorezko kronista, gero Kultur Mahaiko ohorezko bazkide, eta orain, sansebastianetan, egindako ibilbidea aitortu dio Udalak. Milesker Imanol, bejondeizula!



alex silva



Beste pausotxo bat

MEDIATEKA. Aurrenekoz entzutean zer demontre esan nahi du pentsatuko zuten askok. Medio guztietako informazio gunea dela esango nuke. Herritarrentzako informazio/zerbitzu gune berria. Bideoak, liburuak, material digitala... dena eskura, dena kulturgintzarako.



Mundura zabaldu

FITUR. Madrilgo erakustazokan izan dira Azpeitiko Udal ordezkariak. Herriko hainbat leku ahalik eta ondoen saltzera joan dira. Garai gogor hauetan, inoiz baino beharrezkoagoak ditugu bisita horiek. Beraz, ea Espainian izan duten eginkizuna ondo bete eta helburua lortzen dugun.✘



Aitor Unanue.

ESANA DAGO

“Mendizaletasunarekin lotutako eskaintza zabaltzea da gure asmoa”

AITOR UNANUE

Lagun Onak

M. B-ko presidentea

“Xamanek

kobazuloetan egiten zituzten marrazkiak bezala dira”

GAIZKA OTAMENDI

margolaria

“Euskarazko

kateak behar luke xede nagusi”

XABIER EUZKITZE

kazetaria

lentzeria
mertzeria

jose artetxe, 16

nabar

ostadar optika

OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

Kolosala izango da

Zuri Sarrionandia etorri zitzaizun burura lehen aldian. Etxean dago liburua, ez zara akordatzen zer kontatzen duen, zertaz den, baina esperoan dagoen umearekin akordatzen zara, etorriko denak egiten dion ilusioarekin, umearen begiak ikusten dituzu, eta begi haietatik ikusten duzu gertatuko denaren handitasuna.

Denak ez dira, ordea, datorrena ikusteko gauza. Edo ezkutatu egin nahi dute. Eta zerbait ezkutatzeko norberak hitzik ez duenean besteren hitzak erasotzen ditugu sarritan. Horrela, ez da apenas aitatu Sarrionandiaren liburu baten izenburua dela eta horri behintzat egiten diola erreferentzia, eta eztabaidan jardun dira batzuk “kolosala” hitzaren gainean: erdarakada omen da, ez omen da egokia, ez da hiztegiaren agertzen, eman zaion adierarekin. Euskarak ba omen dauzka adierazi nahi dena adierazteko bestelako hitzak, beste era bateko esamoldeak. Pekatu



ñaut frantzesena

mortala egin omen dute slogan hori proposatu dutenek.

Azalpenak ematen hasteko gogoia jarri zitzaizun: maileguren eta erdarakaden artean dagoen diferentzia zein den esatekoa, zuzentasunetik egokitasunera dagoen aldea erakustekoa. Pentsatzen duzu hiztegiileek lantegi zaila daukatela, beti iristen dirako berandu, eta iristen direnerako hitzak beste norabait joanak izaten dira, edo aldatuta edo desgertuta. Hala ere, isilik geratzea erabaki zenuen: gauza bakoitzak badu bere garaia, gauza bakoitza bere garaian egin behar da, eta orain garai kolosalak datoz. Edo kanta libertario zaharrak zioen moduan, laster izango da gerezi denbora.

Ez dago inolako zalantzarik, etortzen denean ere batzuk hizkuntzaren zuzentasunaz eztabaida sortuko dute, baina eztabaida horrek ez du estaliko benetan garrantzitsua dena, eta kolosala izango da.*

galdetzen hasita, udaberritik aurrera ibiliko al da Azpeitia eta Lasao arteko ibilbidea egin ohi duen tren? Uztarria

Ama solterie

Azpeitira ailegatu eta hemengo adiskide batek gomendatu zidan: “Kontuz! Oso irekia zara eta ama solterie zarenez, arrisksua izan daiteke; ezin diozu edozeini konfidantzarik eman, zure portaera arretaz aztertuko baitute, eta denon ahotan bazaude, ondorioak zure alabak pairatuko ditu.”

Hara! Ezkontza eta dibortzioa sufritu banituen ere, ezkongabeko amaren mailan nengoela konturatu nintzen eta ez zen batere ona! Egoera zibilak itzulpen etikoa zeukan eta.

Beste batek esan zidan: “Monoparentala zara, beraz, beste amei baino gehiago exijituko dizute. Gurasoek umeen zaintzaren azterketan 7 puntu behar badituzte nahiko ateratzeko; monoparentalek, berriz, 9 edo 9,5 ateratzea duzue”.

Pertsona ona denez, bere burua eskaini zidan: “Merienda prestatzeko astirik ez badaukazu, neuk egingo diot. Umea ondo zainduta dagoela erakustea da garrantzitsua”.



miren alcedo

Horrela, Gipuzkoa karlistan nengoela konturatu nintzen.

Kezkatuago egoteko Donostia oroliberalean ikasi nuen, bi hurrek delitu bera egiten badute, familia motaren arabera zigorra jartzen dietela. Hori onartu zuten adingabeko bi fiskalek. Irizpidea oso simplea da: haurra familia estrukturatu batean bizi bada eta kirola gustatzen bazaio, zigor txikiagoa jasotzen du. Familia-kirola harremana aspalditik dator, NODO ikusten genuen bezala. Zergatia ez dakit; baina, bai kirolak, bai “funtsezko” familiak oso ospe ona dute askatasunik gabeko sistema politikoetan.

Oraindik horrela bagaude, ezin dut imajinatu zer zen ama solterie izatea duela 20, 30 edo 40 urte. Heroiak zirela eta seme-alabak haurtzarotik bizirik eta tara inportanterik gabe ateratzen, oso zorte onekoak zirela uste dut. Hauek dira Azpeitiko benetako mirariak!

Haientzat, bihotz-bihotzez, nire esker ona!*



Ze iteitupa?

Hementxe motell, kakai bueltaka.
Bonbiei xeibat aldiz emantzoat baño...
eztek juten da!

beste soluziyomat
pentsau berkoek.

sfrontz
SHHHHHH

halaxeepea.

grum
grum
grum
grum





hazi, hezi eta ikasi

IRAURGI
ikastetxea



0 urte

hartzaindegia

1 eta 2 urte

Bi eskaintza:
- hartzaindegia
- gela arrunta
(goizez
arratsaldez
goizez eta arratsaldez)

3, 4 eta 5 urte

Bi eskaintza:
- gela arrunta
- gela + hartzokoa
(iraila, gabonak, aste santuan
eta uztailean eskolara
etortzeko aukera)

gela arrunta: 09:00-12:15 / 15:00 - 17:00
hartzaindegia: 07:30 - 19:00



ZERBITZUAK

- 1) AUTOBUSA
- Herri barrukoa
- Ingurukoa
- 2) JANGELA
- Gure sukaldean
prestatutako janaria
- 3) RETENA
- 4) ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK



0-18 urte arteko hezkuntza eskaintza zabala

Ate irekiak otsailaren 6an, 15:30ean, Artzubia Hiribidea 7an.
informa zaitez 943 81 02 10 (DBH) eta 943 81 63 80 (HH)





Uneak harrapatzen

Zaletasuna lanbide bihurtzea lortu eta argazki kazetaritzan dihardu Ainara Garciak. Haren lanekin bilduma osatu du Uztarriak. 📝📷 Ainara Garcia Azpiazu



▲ **ITSASOA HASERRE.**

Mediterranear itsasoan olaturik ez dagoela diote. Ez da beti horrela. Gozo irlan igaro genituen egun haietan sekulako haizea zegoen eta olatu ikusgarriez gozatu genuen.



▼ **DADESKO, ZORABIAGARRIA.**

Marokora joan aurretik Internetez ikusi genuen bide xeibre hau, eta gure bidaia, bertatik pasatzeko moldatu genuen. Ikusteko polita bai, baina erraz zorabiatzen direnei ez nieke aholkatuko handik pasatzea, badaezpada.



▲ **UDAKO ARRATSA NEGUAN.**

Donostian lainoz estalitako zero euritsuak ikustera gaude ohituta, baina aurtengo negua ez doa batere gaizki. Urteko lehenengo egunetan, ezusteko pozgarria izan da, udako argia temperatura hotzetan ikustea.

▶ **GOZOKO IHAUTERIAK.**

Maltako irlek betidanik izan dute parrandazale fama. Bertako ihauteriak ez dira gutxiagorako. Desfile ikusgarriak, zomorro landuak eta ikaragarritzko festa-giroa.

▼ **SAN JUAN SUA.**

Lanetik bueltan, etxe ondoko igerileku atzera gerturatu nintzen San Juan Sua ikusteko asmoz. Sarritan argazki ederrenak egiteko aukera etxe azpian suertatzen zaigu.



▲ **EGUNEROKO BAINUA.**

Kontxako hondartzan jendea elurraz gozaten argazkiak egiteko eskatu zidaten egunkarian, elurra itsaso mailaraino egin zuenean. Han zebiltzan familiak umekin elurrezko panpinak eraikitzen. Halako batean, eguneroko igeri saioa eginda gizon batek uretatik irten zuen. Eta ez zen bakarra...





▲ LAPONIA TRINEOZ.

Orain arte egindako bidaia guztietako bizipen zoragarriena izan zen. Laponiako basoak huskyen trineo batean zeharkatzeak sekulako askatasun sentipena pizten dizu.



▲ EURIA DONOSTIAN.

Ez da ohikoa zerua oskarbi ikustea Donostian, hala ere, argazki kamerarekin irten genuen egun hartan lagun batek eta biok. Maiatzeko egun ilun, euritsu eta hotz bat izan zen arren, azken orduko ezusteko eguzki-izpi laranja hark, hanka bustiak eta hurrengo eguneko katarroa ahaztarazi zizkigun.✘

Diskoak, bira eta bira

Azken urteetan, disko jartzaileak parrandetako protagonista bihurtu dira. Herrian ere ugaritzen doaz zaletasun hori duten gazteak. 📝📷 Ainitze Agirrezabala

Los Smiths taldeak *Panic* (Ikara) kantuarekin 'hang the dj' (urkatu dj-a) esaldia ospetsu bihurtu zuenetik nahikoa euri egin du. "Erre diskoteka, urkatu Dj bedeinkatua, etengabe jartzen duten musikak ez baitit ezer esaten nire bizitzaz... Urkatu Dj-a, urkatu Dj-a, urkatu Dj-a...; zioen abestiaren letrak.

80ko hamarkadan Erresuma Batuan sortu zen taldeak Dj-aren irudiari egurra eman bazion ere, egun, Dj-ak parrandetako protagonista bilakatu dira. Areto, taberna eta diskoteketan ohikoa da disko jartzaileak ikustea. Azken urteetan, Dj-aren irudia asko aldatzeaz gain, txanpiñoiak bezala zabaldu dira, plazetako erromerietan eta ezkontzetan giroa alaitzeaz lanbide zuten taldeei itzala egiteraino.

Mikel Zubizarretarentzat (Azpeitia, 1985) eta Iñaki Etxanizentzat (Azpeitia, 1985) musikak arnasa hartzeak bezainbeste garrantzia du euren bizitzan. Ofizioz ez, baina afizioz Dj-ak dira. *Dj Beba* eta *Dj Panda*.

Umetatik dira lagunak Zubizarreta eta Etxaniz; beti elkarrekin, lotura estua dute oraindik ere, musika jartzeko zaletasuna baitute biek. "Musika elektronikoaren oso zaleak

Herrian
bidea zabaldu
duten Dj-ak
Aitzor Arregi 'TXOL'
eta oier Aramendi
'Dj Ulea' izan
dira

izan gara, betidanik", adierazu du Etxanizek. "Herrian gehiago ere badira, Aitzol Arregi *Txol* eta Oier Aramendi *Dj Ulea*, nolabait bidea zabaldu dutenak eta gure irakasle izan direnak. Beti haiek entzuten, diru pixkat inguratu eta aukera suertatu ziizaigunean, ekipoa erosi eta denborapasa bezala hasi ginen". Zubizarretaren esanetan, pasatu den hilean lau urte bete zituzten honetan hasi zirela. "Nik betidanik eduki dut gogoia musika pintxatze-ko. Bost lagunen artean erosi genuen eki-

poa, lokalerako, nahiz eta Panda eta biok aritu musika jartzen. Bi plater, mahai txiki bat eta binilo mordoska, hirurehundik gora, erosi genizkion *Telle* zestoarrari, bigarren eskuan. Garai bateko *bakailaua* zen, Exkerretegiakoa".

Sekretua, tempo berean nahastea

Ostiral gauero jartzen dute musika Lokotx tabernan, eta "ahal duten guztietan" Desguaze Music lokaletik saioa eskaintzen dute Internetez, *Live Stream* webgunean duten kanaletik. Saio horiek ez ezik beste hainbatek ere betetzen dute bi Dj horien egutegia. "Pare bat aldez ailegatu gara Pagoara pintxatzera, Txitxarron ere ibili izan gara, baina diskoteketan, esaten dena, gutxi. Bergaran Tartufon, Arrasaten Maritxu Kajoitan... Gainontzean, aretoak alokatu izan ditugu, 300-400 eurotan, festak antolatzeke".

Saio bakoitzaren aurretik zer kantu jarri aukeratzeko dutela kontatu du Etxanizek: "Interneten bilatu eta jaisten ditugu debalde, oro har; nahi duguna bilatu ezean, berriz, erosi egin behar. Ez dira asko kostatzen, kantu bakoitza pare bat euro".



Mikel Zubizarreta 'Dj Beba' eta Iñaki Etxaniz 'Dj Panda', musika jartzen. |||Dj Beba

Behin aukeratutako kantak ordenagailuan gordeta, musika jartzeko garaian, disko huts batetara pasatuz egiten dute. Zubizarretaren esanetan, "kaskoen alde batean jendea entzuten ari dena dugu, eta bestean, nahastu nahi dugun kanta. Plater batean eta bestean dauden abestiak erritmo eta tempo berean nahastean dago sekretua". "Zaila da adierazten zer estilo lantzen dugun", dio *Dj Pandak*. "Techno musikak aldaera asko ditu. Egun dagoen barietatearekin, denak nahastuz joan dira". "Ulertzeko: elektroa, minimala eta teknoa. 2003tik 2007ra bitartean entzuten zen musikarekin aritzen gara", azaldu du *Bebak*.

Binilo digitalekin aritzen badira ere, "kontrolatzailearen erabilera modan" dagoela diote. "Orain, diskoteka gutxitan ikus daiteke platoekin pintxatzen. Richie Hawitin Dj ospetsuak jarritako moda da. Botoi bat zapaldu eta erritmoa bilatzea eta dena berak egiten du. Baina, horrek guretzat ez du graziarik".

Sormen propioa

Gustuko Dj-ren batek halako lekutan jotzen zuela-eta, hartu hegazkina eta bidaiatu izan

dute. "Horrelakoak egin ditugu", dio *Bebak*. "Londresen izan nintzen Anthony Rother ikusten; Zuricheko jaialdian; Brasilgo Wimbi Beach diskotekan... laz, esaterako, Monegroetara joan ginen, eta kasualitatez, *Doctor Electrolux Dj-a* entzun nuen, hunkitu eta lantzen nuen musika estiloaren txipa aldatu zidan. Ordura arte, minimala egiten nuen, eta harrezkero elektroa egiten dut".

Etxaniz Alemaniara joan zen, hiru eguneko jai batetara. "Gustuko ditugun hainbat Dj-k pintxatzen zutela jakin, eta koadrilan joan ginen, astebeterako. Halere, niretzako Dj izarrira *Ima Chill Out* da, eta *Txol* ere bai".

Besteren musika jartzeaz haratago joan nahi izan du Zubizarretak: "Nik beti gehiago nahi izaten dut, eta neure musika propioa sortu dut, Bebatronik izenean. Baditut kantu batzuk, baina beste munduko ezer ere ez. Soinu batzuk oinarri dituen programa bat dut, eta sormen lana egiten dut. *Dj Amsia* azkoitiarrak ikastarotxo bat eman zidan eta hor ari naiz, baina bide luzea da. Zeozer ondo egin nahi bada, ordu asko sartu behar dira". "Ari da, ari da...", bota du *Pandak*. "Hasie-

ran... kanta bat bazen zeharo astuna! Kanta bukatzerako nazkatu! Baina orain zaratak eta aldaketak hobeto sartzen ditu". www.miss-clood.com orrian entzun daitezke Desguaze Music Record eta Bebatronic-en saioak.

Musika jartzaile bezala Azpeitian zaletasun handia dagoela diote. "Ez dakit moda kontua den, baina ikaragarri gara", dio *Bebak*. *Pandaren* esanetan, "garai batean ez bezala orain tabernetan –Korralen, Lokotxen, Pikuian, Negudan– entzuten da musika elektronikoa eta jendeari gustatu egiten zaio. Lehenago, jendeak musika elektronikoa beste era batera ikusten zuen. Erotzen zuen musika bezala, eta diskoteketako giroarekin lotzen zen. Orain, naturaltasunez hartzen da". *Bebak* gaineratu duenez, "Azpeitian musika elektronikoa jartzen Negudako Juanillo zena hasi zen. Gero, *Txol*, *Binzo*, *Ulea*... izan dira bidea zabaldu dutenak. Festatxo batzuk ere antolatu ziren Gatzetxean, Txarrantxan... Eta, esker-tzekoa da, Lokotxen, Negudan, Korralen... saioak antolatzeko ematen diguten aukera".

Musika pintxatzeko beharra egunerokoa ez badute ere, ez dago egunik musika entzu-▶

►ten ez dutenik. *Bebak* adierazi duenez, "pintxatu ez, baina egunero dut musika entzuteko beharra. Berdin zait zer, Eskorbuto, Cicatriz...". "Nik egunero sesio bat entzuten dut", gaineratu du *Pandak*. "Musika horrekin lo hartzea dagoenik pentsatzea zaila da, baina gauean, oheratzean, entzuten dut".

Musikaren munduak eman dienaz galdetuta, "ezagutu ditugun lagunak", diote. "Egiten duguna jendeari hainbeste gustatzen zaiola ikusteak ere bete egiten zaitu. Horrekin jada helburua bete dut nik. Ohitzen ari naiz, baina niretzako txarrena, jendearen aurrean musika jartzen egote hori da. *Beba* ondoan badut, lasaiago aritzen naiz", dio *Pandak*. *Bebaren* esanetan, handik edo hemendik pintxatzera joateko deiak jasotzeak "asko pozten" ditu. "Okerrena, berriz, pintxatzeko materiala hondatzen edo huts egiten hastean izaten da. Neure buruarekin haserretu egiten naiz".

Dakitena gazteagoei erakusteko ere prest daude. "Pintxatzen ari garela gazteak gerturatzten zaizkigu, probatzeko zera hori izaten dute", dio *Pandak*. *Bebaren* esanetan, "lotsatu egiten dira, baina esaten diegu lasai azaltzeko lokalera, erakutsiko diegula-eta".

Referee, ezkontzetako Dj-a

Musika zaletasuna "betidanik" izan badu ere, diskoak jartzeko mundu horretan Oier Aramendi *Dj Ulea*-ren bidez "sartu" zela kontatu du Iraitz Olaizola *Dj Referee*-ek. "Elkarrekin ikasten genuen Zarautzen, eta bi plater, mahaitxo bat eta binilo batzuk saltzeko zeuzkala komentatu zigun lagun bati eta bioi. Animatu egin nintzen, ekipoa erosi eta etxeko ganbaran hasi nintzen, duela sei bat urte. Denborarekin, eskua hartzen joan ahala, ekipoa hobetu dut, eta orain sei plater ditut. Idea bat egitearren: Seat Panda batekin hasi nintzen; gero, Ford Scort bat izatera pasatu nintzen, eta orain BMWa dut".

Luze baino lehen atera zen, ordea, ganbara zuloatik kalera, diskoak jartzera: "Koadrilako baten amak taberna du Sanjuandegin eta auzoko festetan musika jarriko nuen eskatu zidan, eta aurrenekoz han aritu nintzen. Gero,



Iraitz Olaizola 'Dj Referee', musika jartzen. |||Dj Referee

garai hartan bertan, osaba batek ezkondu egin behar zuen, eta bere bodan musika jartzen ausartuko nintzen esan zidan. Probatu egin nuen, gustatu egin zitzaidan eta horrela hasi nintzen". Geroztik, Inoxen, Sanagustinen eta beste hainbat tabernetan jarri izan du musika, baina, normalean, ezkontzetan, kinto-afarietan eta enpresa-bazkarietan aritzen da musika jartzen. "Ekainean jaunartze batetan ariko naiz, baina hori ez da ohikoena".

Halakoetan, parrandako musika, *patxanga* jartzen du. "Ezkontzera doazen hainbat bikotek nire gain uzten dute erreperitorioa; beste batzuek 40 kantuko zerrenda bat ematen didate... denetik dago. Behin, senargaia Realzalea zela eta ereserkia jartzeko eskatu zidaten. Gonbidatu bat etorri eta Athleticetara jarriko nuen esan zidan. Nik ezetz esaten jakin ez eta Realekoa bukatzean Athleticetara jarri nuen. Jarri orduko, senargaia etorri eta aplikadorearen entxufe atera zuen".

Neska-lagunarekin lurretan, Bizkaian, bizi bada ere, Azpeitia inguruan sortzen zaio lanik gehiena. "Webgune bat ere sortu nuen, nire jarduna ezagutara emateko asmotan, eta egia esan laguntzen du jendearengana heltzen. Halere, ahoz ahokoaren bidez-eta, batez ere Azpeiti inguruko ezagunek deitzen

didate. Egia esan krisiaren eragina nabari dut, baina onerako. Joxeinak-eta kobratzen dutenaren erdia eskatzen dut nik, eta beraz, garai zail hauetan niregana jende gehiagok jotzen du". Dj lanetan aritzeaz gain, autobuseko txoferra ere bada Olaizola.

Bestek deitu zain egon beharrean, behin baino gehiagotan esakini izan du bere burua, esaterako, ikastolen aldeko festan musika jartzeko. "Duela bi urte Nafarroa Oinezen aritu nintzen diskoak jartzen. laz, Azpeitian ospatu zen KM-ak jaia, eta han aritzeko ere saiatu nintzen, baina ez zidaten kasurik egin. Estilo horretako musikarik ez zutela nahi esan izan balute, tira! Baina, herrikoari ezetz esan, eta kanpotik bi Dj ekarri zituzten. Ez dakit haiek zenbat kobratuko zuten, baina ni debalde egiteko prest nengoan".

Autore eskubideak...

Disko jartzaile bezala arazoak saihesteko SGAEn erregistratzea "beharrezkoa" dela dioen arren, "lapurreta hutsa" dela iruditzen zaio: "Autobuseko txoferra ere banaiz, eta irratia ipintzeagatik SGAeri ordaindu beharra ez da normala. Atera kontuak, idazle batek bere liburu baten autore eskubideengatik, urtean 2 euro besterik ez du kobratzen!". ✘

urke ondo pasa inauteriak

ARGAZKI ETA BIDEO ERREPORTAJIAK - salbe auzunea 35 - telf 943 15 12 87 - azpeitia

Aiortza Autoak

CITROËN 943 811 915 - AZPEITIA
aiortzaautoak@telefonica.net

Dj-ek eklipsatuta

Disko jartzaileen ugaritzeak talde konbentzionalen desagertzea ekarri du, apurka-apurka. Beti Alai urtean 100 ezkontzetan jotzera ailegatu zen, Dj-ak agertu eta desagertu zen arte.  A. Agirrezabala

Dozena erdi urte da Beti Alai taldeak ezkontzetan –plazetan ere ibili izan ziren– jotzeari utzi ziola, 40 urtetik gorako ibilbidea egin eta gero. John F. Kennedy erail zuten urtean, 1963an, eskaini zuten aurreneko emanaldia, sanandresetan. Beti Alaiako kide

Iñaki Arenas azpeitiarrak kontatu duenez, “hasiera batean Santa Zezilia Egunean eskaini behar genuen kontzertua, baina azaroaren 22ko hilketara hura eta gero, Francok astebeteko dolu nazionala deitu eta ospakizun guztiak bertan behera geratu ziren”.

Azkoitiko Udal Musika Bandak atsedenaldira hartzen zuen tartea

aprobetxatzen zuten musika jotzeko. Gisa horretan ekin zion ibilbidea taldeak, eta modu horretan egin ziren ezagunak. Gerotik, hamaika ezkontza eta plazetan jo izan dute. “Sasoirik onenean, 90eko hamarkadan, urtean 100 ezkontzatan jotzera ailegatu ginen”, kontatu du Alberto Gonzalez taldeko bateria joleak. “Os-

tiral gauean hasi, zapatu eguerdian eta gauean jo, inoiz igandetan ere bai... Aste tartean, astelehenean eta ostegunetan, ere izaten ziren ezkontzak, eta lanetik jai eskatzen genuen. Guk, batez ere, Kirurin jotzen genuen, baina baita Zumarragako Etxeberrin eta Zestoako Arozena eta balnearioan ere. Orduan urteko kontratu bat adosten zen jatetxeekin”.

Bodetan jotzeko erreperitorio luzea prest izaten zutela dio Arenasek: “Ezkontzan zegoen jendearen araberrako kantak jotzen genituen, baina gehienak euskal kantak, rantxerak, pasodobleak... Gorka Knorren *Mort pour la patrie* asko eskatzen ziguten”. Autore eskubideak xuxen ordaintzen zituztela ere gaineratu du Gonzalezek: “Jotzen genuen kantu bakoitzaren autorea eta izena idazten genituen paper batean; gero, jatetxeari ematen genion zerrenda eta ezkonberriek ordaintzen zituzten autore eskubideak. Ez zuten kantuko ordaintzen, ezkontzan ziren mahaikide bakoitzeko, baizik”.

“Adinean aurrera” ere bai, eta plazetan jotzea utzi eta azkeneko bost urtetan ezkontzetan bakarrik jo zuten. “Pixkanaka, ordea, ezkontzetako eskaera jaisten joan zen; disko jartzaileek moztu ziguten asko. Furgoneta eta ekipogu ztia saldu eta erretiratu egin ginen”.✘



Alberto Gonzalez, Iñaki Arenas, Mailu Agirre, Kruz Mari Alberdi eta Jexux Urizar, Kirurin.  A. Gonzalez



Tindategia
Sagarna

- Berezitasuna lehorreko garbiketarako
- Nordikoak, mantak, edredoiak eta gortinen garbiketara berezia

Ildefonso Gurrutxaga, 3 • tel.: 943 02 66 81

Herria abordatzera!

Adin guztietako partaideak dituen pirata talde batek zeharkatuko ditu Azpeitiko kaleak, Astelehen karnabaleko mozorro desfilean. 📌📍 Eneritz Albisu

Sansebastianak joanda, inauteriak ate joka ditugu, eta astelehen iluntzeko mozorro festan talde saritua zein izango den pentsatzen dugun bitartean, guk uste baino jende gehiagok prestatzen du astelehen goizeko desfilea: gaztetxoek eta haien gurasoek zer esana emango dute aurten ere gure herrian.

Asier Goenaga, Igor Zabala eta honen alaba Malen jada hasi dira otsailaren 20rako jantziak prestatzen. Ohiturei eutsiz, guraso

eta seme-alabak elkarrekin irtengo dira haurren desfilean eta aurtengoan, Azpeitia abor-datuko dute pirataz jantzita.

Hogei bat pertsonaz osaturiko talde hau duela hiru urte hasi zen haurren desfilean parte hartzen. Elkarriketatuen hitzetan desfilea "guztiak elkartu eta egunpasa polita egiteko aitzakia bat da, azken finean, egun osora luzatzen baita plana". Goizean desfileaz gozatzen dute eta ondoren, euren elkartera, Zokoara, joaten dira bazkaltzera, guztiak batera.

Guraso batzuen ideia izan zen adin guztietako senide eta lagunek desfilean batera parte hartzea. Lehenengo urtean, pailazoek kolore biziz josi zituzten kaleak, ondoren sevillar eta kordobarren zapata hotsek hartu zuten Azpeitia eta aurten, pirata jantzita herria konkistatzeko asmotan datoz.

Guk kalean ikusten dugunaren atzean, ordea, prestaketa eta antolaketa lana dago. Lehendabizi jantzia hautatu behar da eta ondoren, eginbeharrak banatu. Goenaga eta





Zabalaren esanetan, "gogo pixka batekin" hartuz gero, "lan erraza" da: "Haur batek edo bestek beti izaten du kexaren bat hasieran, baina behin jantziak eskuartean guztia ahazten zaie".

Mozorroa hautatzerako garaian "erraztasunean" pentsatzen dutela dio hirukoteak: "Sinplea izan dadila, edonork lortu eta jantzeko modukoa". Aurtengoan, santomasetarako jada erabakita zuten zein izango zen jantzia, eta dagoeneko dena prest dute; beste urte batzuetan, aldiz, bazkaria egin izan ohi dute erabaki bat hartu eta eginkizunak elkarren artean banatzeko.

Mozorroaren diseinuari dagokionez, lagun taldeak ez du inolaz ere uniformetasuna bila-

tzen; ondo pasatzea helburu nagusizat hartuta, gauza beraz mozorrotzen dira, baina ezberdin. "Bakoitzak bere erara lortzen ditu jantziak, ahal duen moduan moldatzen da, eta honela, gai bakarra mantenduz, mozorro ezberdinak izatea lortzen dugu".

Kontuak kontu, kalera irten eta giro bikainaz gozatzeko aukera ematen diete hurrek gurasoei eta hasiera batean, ekimen honetan parte hartzen gaztetxoenei ilusioa pizteko asmoz hasi baziren ere, euretako askok hurrek baino askoz hobeto pasatzen dutela kontatu dute. "Batzentzat karnabalak oso gauza berezia dira, mozorrotzea asko gustatzen zaie, berezkoa dute: horrelako jendea ere badugu gure artean".

Ezberdintasunak tarteko, hiru elkarrizketatuak bat datoz azpeitiarrontzat inauteriak kutsu berezia dutela esaterakoan. Euren esanetan, "giroa ezberdina da; bai elegante egunean, bai mozorro egunean. Agian zezenagatik, edo urtean behin zerbait ezberdina egiteko aukera izaten dugulako, baina zerbait badaute".

Azpeitiarren etxeko leihotatik jada hasi da inauterien usaina sartzen, Malen Zabala duela egun batzuk jardun zen kaldereroetako jantzia armairutik berreskuratu eta probatzen. Mozorro eguna baino lehen, beste ekimen garrantzitsu bat du talde honek, kaldereroetan ere eztarria lagaz parte hartuko baitute.✘



III "Semea tematuta zegoen Spiderman jatzeko; orain pirataz jatzeko ilusioa du"

ASIER GOENAGA



III "Karnabaletatik gehien gustatzen zaidana parranda da; nik ere egiten dut!"

MALEN ZABALA



III "Umeak karnabaletan mozorrotuta gustura badaude, gu ere bai"

IGOR ZABALA

AZPEITIKO INAUTERIAK

2012



ONDO PASATU!

|||alaitz olaizola|||



|||gurutze eizmendi|||

Jardun merkea

Alaitz. Krisia dela eta ez dela, atzo entzundako azkena: gasolina ikaragarri garestituko omen dun. Orain garesti eta laster garestiago!

Gurutze. Bai, neuk ere entzun dinat. Krisiaren aurrean ez al da hobe gauzak merkatzea? Horrela, jendeari gastatzeko dirua geratuko zaion, bestela, berriz, dirurik gabe ezin inon gastatu. Nik hala uste dinat behintzat!

Alaitz. Ederki ari haiz! Horren erraza ez dun izango... *Gurutze for president!* Hi, hi kotxean ibiltzen haiz, eta badakin zer egin irteerarik gabeko zulotik ateratzeko: utzi kotxea txintxo-txintxo aparkatuta, eta hartu bizikleta.

Gurutze. Hi ere, ederki ari haiz! Bat-batean ohiturak aldatzea ez dun erraza izaten. Dena dela, derrigorra bezalakorik ez zagon. Duda-txo bat: bizikleta mantentzea garestia al da?

Alaitz. Garestia, garestia... Noizean behin gurpilak puztu, balaztak egokitu, garbitu... Eta nola ez, eta hau bai dela derrigorrezkoa, pedalei eragiteko hauspoa eduki. Bizikleta ondo mantentzeko, jabeak mantendu behar ondo! Batez ere, ni bezala, bizikletaren otarra karga-karga eramaten badun.

Gurutze. Hasieran oinez hastea hobe izango dinat, hauspoa egite aldera. Auto eskolak dauden bezala, ez al zagon bizikleta eskolarik? Urte mordo bat badun bizikletan ibili ez naizela. Behin ikasiz gero ez dun ahazten, baina bai aldrebesten. Dena dela, gauza bat esango dinat: bizikleta famatzen dun, baina kopilotu bezala ere ederki ibiltzen haiz!

Alaitz. Eta hik, bakarrik baino kopilotuarekin nahiago!

Gurutze. Dena dela, bakarrik ibiltzen ohituta nagon, baina bai, tarteka, irratia entzun beharrean, ondokoaren jarduna eskertzen dun.

|||ALAITZ. “Bi gurpilen gainean ere jardunaldi ederrak egitea zagon!”

|||GURUTZE. “Hankaz gora erortzeko batere gogorik ez zaukanat”

Alaitz. Eskerrik asko. Imajinatzen haut irratiko esatariari erantzuten, edo “zigarro bat erreko al dugu?”, galdetzen. Argi zagon, bizikletaren asuntoari muzin egin nahi dion, baina bi gurpilen gainean ere jardunaldi ederrak egitea zagon! Nahi badun, parrillan eramango haut.


Gurutze. Aizan, barkatu hiezadan, baina hankaz gora erortzeko batere gogorik ez zaukanat. Gauza bat egingo dinagu: hik segi bizikletan, eta ni, ahal den bitartean, kotxean ibiliko naun. Hori bai, herri mailan oinez ibiltzen saiatuko naun. Zer iruditzen zain?

Alaitz. Mundial. Nik bizikleta gainetik egingo dinat aio!

Gurutze. Eta nik bi hanken gainetik erantzungo dinat. Agur indurain!✘



Karnabalak, ondo hornituta

Jaitik astearterta, festa egitarau mardularekin datoz inauteriak. Txikiteo Elegantea, haur eta helduen mozorro festak, zezena eta kale animazioa dira osagai nagusiak aurten ere.  Ainitze Agirrezabala

Kaldereroen etorreraren eta Euskal Inauteriaren kalejiraren ondoren, hilaren 19an hasiko da herriko karnabaletako hiru eguneko egitarau nagusia. Jaitik astearterta festa egitaraua ondo hornituta dator. Txikiteo Elegantea, haur eta helduen mozorro festak, zezena eta kale animazioa, osagai nagusiak aurten ere.

Elegante Egunean, bestek beste, XXXIII. Juan de Antxieta argazki lehiaketa (12:00), Itsasiko artzai-iñudeak eta sokamuturra izango dira (12:30). Eskandalue elektrotzaranga ere kalean ibiliko da (13:00). Arratsaldean, berriz, 16:30etik aurrera sokamuturra eta 19:30ean Funky a L'olla zankodunen emanaldia.

Astelehen Karnabalean, berriz, sokako zezena, zezen txikiak eta poniak izango dira plazan

III DATUAK

III **Zer.** Karnabalak.
III **Eguna.** Otsailak 19, 20 eta 21 (igandea, astelehena eta asteartea). III **Ordua.** Egun osoa. III **Tokia.** Herriko kaleak.
III **Antolatzailea.** Azpeitiko Udala.

(10:00). Gero, 12:30ean, mozorrotutako umeen desfilea egingo da. Arratsaldean, umeentzako jolasak egongo dira Olazko Andre Mariaren plazan (16:00), eta baita sokamuturra ere (16:30). Goizaldeko 01:30ean mozorro lehiaketako sariak banatuko dira.

Astearte karnabalean, sokamuturra (07:00/16:30) izango da nagusi, baina baita umeentzako jolas parkea ere (16:00)

III KARNABALAK

14 ordu, gutxi gora behera. Pasatuko ditu zezenak kalean, Karnabaletan hasi igande eguerdian eta astearte iluntzerarte.

33 argazki lehiaketa. Aurten ere karnabaletako irudiak jasoko dituzte, eta sokamuturra izango da gai nagusia.*



Itsasiko artzai-iñudeak kalejiran, Elegante Egunean.  Julene Frantzesena

III BESTERIK

1 Santagedak Matxinbentan Santa Ageda bezperan auzoko taldea eskera aterako da Agin Rezola bertsolaria eta Laja eta Izer trikitalariekin. Iluntzean, auzo afaria eta erromeria, Lidia Irigoien eta Xabier Etxanizekin. Igandean, Santa Ageda Egunean, berriz: ume jolasak, pilota partidak, artisau azoka eta herri kirolak izango dira. III **Eguna.** Otsailak 4 eta 5 (zapata eta igandea). III **Tokia.** Matxinbenta. III **Antolatzailea.** Matxinbentako Festa Batzordea.

2 'Oinazez' ikuskizuna "Oinarri tradizional batetik abiatuz izaera berritzailea dugu. Dantza tradizionala, dantza klasikoa nahiz garaikidearekin bateratzen dugu, eta hau guztia, musika, erritmoa eta jantziekin batuta. Gainera, eszenatikiko estetika ere asko zaintzen dugu". 'Oinazez' lan berriarekin etorriko da Ibarako Alurr taldea. III **Eguna.** Otsailak 26 (igandea). III **Ordua.** 19:00 III **Tokia.** Sanagustin. III **Sarrera.** 6 €. III **Antolatzailea.** Kultur Mahaia.

3 Lucio dokumentala Lucio igeltsero eta anarkista nafarrari buruzko dokumentala ikusgai izango da, 'Argia emanaldiak' ekimenaren baitan. III **Eguna.** Otsailak 29 (asteazkena). III **Ordua.** 21:30. III **Tokia.** Sanagustin. III **Antolatzailea.** Sanagustin.*

III Azpeitiko ekimenen informazio gehiago: uztarria.com/agenda

HITZ GEZIDUNAK

| | | | | | | | | | |
|---------------------|----------------|----------------|----------|---|----------------------------|---|----------------|--------------------|---------------|
| | Amaren ama | ▼ | Inprenta | ▼ | Ez labur | ▼ | Prezioa | ▼ | Puxtarriak |
| | Armiarma sarea | | Edo | | Amaren aita | | Jasan, pairatu | | |
| | | ▶ | | ▼ | | ▼ | | ▼ | |
| | Deitura | ▶ | | | | | | | |
| | Bete | | | | | | | | |
| Ariakoa | ▼ | Ezin onartuzko | ▶ | ▼ | | | | | |
| Izena | | Hedabide mota | | | | | | | |
| | ▶ | | ▼ | | Errep., fruitu tropikala | ▶ | | Atomo kargadun | ▶ |
| | | | | | Hegazti beltz | | | Bizitokia | |
| Ipar EH-n, inguru | ▶ | | | | Txapelak | ▶ | ▼ | | |
| Espetxeratu | | | | | Kontso- nantea | | | | |
| | ▶ | | | ▼ | | | | | Bokala |
| | | | | | | | | | Emakume izena |
| Hizki grekoa | ▶ | | | | Musika nota | ▶ | | 10 | Nor atzizkia |
| Bi zati bi | | | | | Tantaloa | | | Errep., txori mota | Iridioa |
| | ▶ | | | | Infusio mota | ▶ | ▼ | Nor | ▶ |
| | | | | | Kontso- nantea | | | Kontso- nantea | ▼ |
| | | | | | | | | | Bokala |
| Letoniako hiriburua | ▶ | | ▼ | | Joaldunek ezinbesteko dute | ▶ | ▼ | | |



Egilea: Luma

* Aktore azpeitiarra

HIZKI ZOPA

Aurki itzazu hizki zopa honetan Azpeitiko 8 auzo eta bazterren izenak



| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| I | K | I | L | D | X | I | T | E | N | B | A |
| F | U | E | R | R | I | G | A | Z | I | E | G |
| A | R | D | U | L | N | O | S | A | G | R | A |
| I | R | I | O | M | A | N | E | T | U | T | I |
| K | E | A | Z | K | O | L | X | I | N | O | S |
| U | S | P | T | A | I | Z | O | E | T | N | O |
| A | T | U | A | Z | L | A | B | I | K | S | L |
| H | I | H | Ñ | A | E | N | A | R | O | U | E |
| O | L | E | O | G | I | R | I | U | S | L | I |
| I | L | P | R | X | E | Z | R | B | E | A | M |
| L | A | I | T | A | H | B | A | E | D | R | I |
| E | L | A | N | D | E | T | A | S | K | U | A |
| S | M | I | L | U | G | U | I | L | L | A | Z |
| K | A | M | E | R | U | Ñ | O | A | E | H | T |

SOLUZIOAK


HITZ GEZIDUNAK

| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | E | R | A | O | J | ● | A | G | R | R | ● |
| ● | N | I | Z | ● | E | T | ● | T | A | B | |
| K | ● | X | ● | A | L | ● | A | U | T | ● | |
| A | ● | U | T | A | L | Z | E | T | A | K | |
| K | A | T | E | N | O | B | ● | R | I | ● | |
| I | O | I | ● | O | K | ● | A | K | E | R | |
| N | Z | E | T | A | R | O | ● | A | ● | | |
| A | L | A | Z | O | L | A | ● | ● | ● | | |
| K | A | R | A | U | A | R | A | ● | ● | | |
| ● | B | ● | ● | ● | ● | ● | ● | ● | ● | | |



HIZKI ZOPA

| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| T | H | E | V | O | N | O | A | E | H | T | K |
| Z | L | A | L | L | G | U | I | L | L | A | S |
| A | S | K | U | A | E | T | A | L | A | N | D |
| I | D | R | I | L | I | A | H | B | A | E | D |
| M | B | E | A | M | L | P | X | E | R | Z | E |
| I | S | L | I | U | S | L | I | O | L | E | O |
| E | U | E | N | A | R | O | U | E | L | A | H |
| S | L | K | S | L | A | T | U | A | T | U | A |
| O | N | O | T | N | O | S | P | A | I | Z | O |
| S | O | S | A | Z | A | K | O | L | X | I | N |
| I | T | I | O | M | A | N | E | T | U | T | I |
| A | G | R | A | N | O | S | A | G | R | A | A |
| G | I | B | A | Z | I | E | R | R | I | G | A |
| B | N | E | X | I | T | E | N | B | A | I | K |



ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEKO EPEA. Otsailak 24 (asteazkena) NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia IRABAZLEARI SARIA. Odriozola upategiko ardo sorta PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da ZEIN DEN ADIERAZI.

ZURE IZEN-ABIZENAK

TELEFONO ZENBAKIA

UZTARRIAREN URTARRILEKO ARGAZKI LEHIAKETA

ZER DAGO SOBERAN, ZER FALTAN?



ATERPETXEARI TXIMINIA FALTA ZAIO



IRABAZLEA



Iñaki Urkia Agirre Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako 135. irabazlea. Odriozola upategiko ardo sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, Iñaki Urkia Agirre, saria eskuetan duela.

ODRIOZOLA ARDOAK

ardoetan aukera zabalena
bertako produktuak eta gutxiak



Iñaki Azpiazu, 5 - Azpeitia - Tel. 943 15 13 16
Axiri poligonoa, 10 - Azkoitia 943850059 / Aitzuri kalea - Zumaia 943860103

Ezpatarraina

Arrain urdina da, %5 koipea da eta haragiak kolore gorrixka eta distiratsua du; bere koipea pisuaren %15 da. Lipido horiek osasungarriak dira, gehienak saturatu gabeak, eta ondorioz, odoleko kolesterola murrizten dute. %16 proteinak dira eta liseriketa erraza du. Azukerik edo karbohidratorik ia ez du eta %70 ura da. A eta D bitaminaz aberatsa den gibela du. A bitamina beharrezkoa da gure azala osasuntsu eta malgu mantentzeko. D bitamina, berriz, haurtzaroko errakismoa eta zahartzaroko osteoporosia saihesten ditu.

Elikatzeko era iraultzailea du: arrain txikien multzo batera hurbiltzean, bortizki astintzen du muturra, inguruko urak nahastuz eta arraintxoak zurrumbiloan zorabiatuz. Ahoa irekitzen du abiadura handiz, minutu gutxitan bere eguneroko bazkaria irensteko.

Munduko ur epeletan bizi da, baina beti gertatu ohi den bezala, japoniarrek aurre hartu digute arrain honen arrantzan; urtean 40.000 tona arrantzatzen badira, erdia japoniar itsasontziek eramaten dute.

Niretzako oso atsegina den haragi tenkatua du, txahal haragi xerra baten eta arrainaren arteko zapo-rea duena. Nire gusturako, jateko prestaketarik onena, plantxan edo parrilan erreta da, limoi tanta, olio-ozpin edo maionesararekin.*



||||||| **Julian bereziartua** |||||

ARANTXA OLAZABAL-MILA TREKU jangelako langileak



- 1. Jatun onak al dira?**
9 urte arte ganoraz jaten dute; gero kexatzen dira.
- 2. Janari gustukoena?**
Pasta.
- 3. Gogoko ez dutena?**
Berdura.
- 4. Platera garbi uzten ez duenari...**

Jan dezan saiatzen gara; probatuarazi egiten diogu.

5. 'Jangelara bidaliko zaitut, ea jaten ikasten duzun...?'

Gurasoei esana diet, mehatxu bezala umea jangelara ez bidaltzeko.

6. Lan honen alderdirik

txarrena?

Gazteen lotsagabekeria.

7. Eta, onena?

Nahi ez zuen zeozer jaten ikasi duela ikustea.

8. Janarekin gustura?
Iaz baino jan garbiagoa eta kalitatez hobea dugu.*

✉ Ainitze Agirrezabala

Amenabar
DENDA
gortinak, ohazalak, edredoi nordikoak ...
Eliz-kale, 32-behea - Tel/Fax: 943 15 06 97

AZKOITIA
ERLOJU KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40
Ekain
ALBAITARI KLINIKA
Larrialdiak:
943 15 16 40

IRENE ALTUNA
LORADENDA
Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ialtunadenda.com

ORDULARI
Jose de Artetxe, 10
Tel. 943 81 52 44

uba
Abokatuak
Abokatuak
Fiskala
laborala
kontrabak
Gestori lanak
Finan administrazioa
Gestio inmobiliarioa
Tel.: 943 157 325 Faxa: 943 157 275
Enparan kalea, 45 • info.az@euskalpost.net

AIZPURU AUTOAK
Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA
aizpuru@aizpuru.net

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"
URBISTONDO MARGOAK
Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

|||ELKARRIZKETA DIGITALA||| patxi juaristi/ander alkorta (AZZ-eko kideak)

“Azpeitian gauzatzeko moduko sistema bat ezarri beharko dugu denon artean”

|||Azpeitia Zero Zaborren lehenengo lana Lapatx ixtea izan beharko luke. Geurea gutxi dela eta kanpotik ekarri zaborra? (... Gauza ederra da eta, kaka guztiontzat)

Azpeitia Zero Zaborren (AZZ) helburu nagusia Zero Zabor programa bultzatzea eta herriko egunerokotasunera zabaltzen laguntzea da. Norabide horretan Lapatx-eko afera soluzio integral baten baitan aztertu beharreko gaia dela uste dugu. Hau da, kontua ez da Lapatx itxi eta beste herri batean baldintza berberetan zabortegi bat ezartzea, aterabidea aurkitzea baizik.

Zero zabor, hau da, zaborrik ez. Ez al da utopia? (Ekain)

Bai, utopia da, eta utopia guztiak bezala, beti hobetuz joan beharreko bide bat markatzen du. Datorren urtean egungo zabor kopurua murriztea lortzen badugu, eta urtez urte bide hori jarraituz

bagoaz, ez al da denontzako positiboa izango?

Zer iritzi duzue atez ateko bilketari buruz? Azpeitian gauzagarria izan daiteke, ezta? (Txipristin)

Interesgarria dela deritzogu. Era berean, sistema bere horretan kopiatzea akats larria litzateke, gure ustez. Azpeitian gauzatzeko moduko sistema bat ezarri beharko dugu denon artean.



Europako Batasunak erraustegiaren energia erabilgarria dauka. Ziur mendietan (Gazumen, adibidez) errota heolikoak ere ez dituzuela nahi. Orain arte bezala Frantziako zentral nuklearretako energia erabili behar al dugu? Zein da zuen energia politika? (Nere)

Gure taldean ez dugu jorratzen energia politika, zeharka ez bada behintzat. Hala ere, gu bion (Patxi eta Ander) iritziz, erraustegiaren energia ez litzateke energia berdetzat hartu beharko, zentral termiko arrunt batetik ez baita bereizten. Bestalde, energia iturri guztiek dituzte aldeko eta kontrako faktoreak. Zaborren kasuan bezala, irtenbideak osoa izan beharko luke, kontsumoak murriztuz, iturriak dibertsifikatuz, ingurumenari ahalik eta kalte gutxien eraginez, eta abar.*

|||EFEMERIDEAK|||

1856

Urrestillako mutikoen maisuari kontu eskean.

Maisua lau edo bost ikaslerekin bakarrik gelditu baitzen bere utzikeriagatik, eta gainontzekoak nesken eskolara joan ziren.

1887

Kale izenak plaketan.

Gobernadore Zibilaren agindua beteta, herriko kale guztien izenarekin plakak lortzea erabaki zuten.

1895

Udalaren erabakia. Plaza Txikian generoa saltzen zuten merkatarien arteko iskanbilak bukatu ziren, bakoitzari plazan izango zituen metroak seinalatuz.

Iturria: Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar liburua.

Egilea: Imanol Elias Odriozola.

Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.*

www.uztarria.com

azpeitiko ataiye

|||eguneko albisteak |||irakurleen erantzunak |||eguneko argazkia |||bideoak |||blogak |||inkesta |||agenda |||bitxikeriak
|||'azpeitia' atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, euskara atala, farmaziak, festak,
hauteskunde denetako emaitzak, geografia, panoramikak, herriko taldeak, liburuak osorik... |||uztarria herri aldizkari denak;
PDF formatoan ere bai |||eguneko efemerideak |||gida komertziala...

|||sartu sarean, eta hartu parte |||egunero **7.000** orrialderen bisita





Gaitasuna erakutsiz

Zalantzak eta kezkak alde batera utziz eta pausoak aurrera emanaz, politikan ibilbide oparoa osatu zuen. 📧📧 Mailo Oiarzabal

Azken urteotan politikatik “zeharo aldentuta” bizi bada ere, hamazazpi urtez Esther Larrañaga (Azpeitia, 1960) puntaren puntan ibili zela esan daiteke. EAJn afiliatua, 1990etik 1995era legebiltzarkide izan zen Gasteizen, 1995etik 1999ra Gipuzkoako Batzar Nagusietan lehendakari, eta beste zortzi urtez Gipuzkoako Foru Aldundian kargua izan zuen: 1999tik 2003ra Gizartekin-tzako programazio eta kudeaketa zuzendari lanetan aritu zen, eta 2003tik 2007ra Gizarte Politikarako diputatu izan zen. Azken legealdi

horretan Azpeitiko Udalean zinegotzi kargua ere izan zuen baina, berak azaltzen duenez, “ez nuen parte hartu udaletxeko lanetan, ez zelako posible. Momentu politikoa ere halakoxea zen, alderdiari Azpeitian tokatu zitzaion zinegotzi pila bat edukitzea, eta nik ez nuen zuzenean parte hartu”.

“Zer ikusten didazue niri?”

Politika munduan eta kargu publikoetan ibilbide oparoa du egina Esther Larrañagak. “Inolako esperientziarik ez” zuela, EAEko Le-

gebiltzarrerako hauteskundeetan Gipuzkoako zerrendan sartu zuten –“hirugarrena nintzela uste dut”– eta horrelaxe hasi zen dena. Aurreneko hautagaitza hura proposatu ziotenekoa nola gogoratzen duen galdetuta, “zalantzak” eta “kezka” hitzak aipatzen ditu: “Zeure zalantzak dituzu. Batik bat, uste dut kezka izaten dela, gai izango al zaren lan hori egiteko”.

Aurreneko hartan bezala ondoren etorri zitzaizkion kargu proposamen guztietan ere bere buruari galdera berdinak egiten zizkiola

dio Larrañagak. "Zergatik ni? Zer ikusten dizuzue niri? Ez dakit gai izango al naizen hau aurrera eramateko'. Gero ba, ez dakit, seguru huts pila bat egingo nituela, baina beno, borondate pixkatekin eta jendearekin akordioetara iritsiz, gauzak egin egiten direla ikusten duzu; nik eta denek". Azpeitiko diputatu ohiak ez du uste gizonek, oro har, horrelakoetan beren buruei antzeko galderarik egiten diotetik. "Nik uste dut gizon bati, kargu edo ardurara bat proposatzen diotenean, azkarrago ateratzen zaiola baiezkoa emakume bati baino. Emakumeok, orokorrean, askoz buelta gehiago ematen dizkiegu gauzei. Askotan pentsatzen dugu, 'kapaz izango al naiz?'. Gizon bati hori ez zaio okurritzen; ez dago bere parametroetan, ez dago".

Politika, beste arlo asko bezala, gizonezkoen plaza izan da beti eta emakumea pixkana-pixkana ari da hor ere bidea egiten. Hor dago, besteak beste, kupoen legea deritzona, hauteskunde zerrendetan gizon-emakumeen presentzia parekatzea helburu duena. Esther Larrañaga politikan ibili zen garaian ez zegoen halakorik eta ez daki hori ote den irtenbide egokia. "Emakumearen presentzia normaldu egin behar da eta, normaltzeko, gehitu egin behar da –dio–. Orain, emakumearen ikusgarritasun hori kupoen bidez lortu behar al da? Ez dakit. Askotan iruditzen zait geu garelako geure buruari trabak jartzen dizkiogunak ere. Gauza askotan bezala, oreka bat lortu behar da: kupoa kupoagatik igoal ez, baina agian emakumeok gehiago ahalegindu behar gara pauso hori aurrera ematen, hainbeste konplexurik gabe".

Kudeaketaren fruituak

Betetako ibilbide politikoan gauza bakar batekin geratzea "erraza ez" dela aitortzen du,



1. Esther Larrañaga (irudian ezkerretik aurrera) Gizarte Politikarako diputatu zen garaian, Zumarragako zahar-etxe berriaren lehen harria jarri zuten egunean. **2.** Azpeitiarra eta azkoitiarra: Larrañaga, Batzar Nagusietako lehendakaria, Roman Sudupe Ahaldun Nagusi izendatuz.

Bestaldetik

III Foru Aldundira iritsi arte gizarte zerbitzuen munduarekin batera harremanik ez zuen Larrañagak, baina arlo horrek "engantxatu" egin zuela aitortzen du; "batzuetan zaila, baina oso lan polita" dela uste du. Lehen Administrazioan aritu bazen, politika utzi ondoren 'beste aldera' pasatu da. Gaur egun, garun-paralisia dutenen Aspace elkartearen Gipuzkoako zuzendaria da azpeitiarra.

baina bete dituen kargu guztietan "zentzu guztietan, pila bat ikasi" duela da beretzat garrantzitsuen. Atzera begiratu, ordea, Diputazioan egindako lanarekin gelditzen da bereziki. "Nik uste dut kargu denak izan direla aberasgarriak eta positiboak, baina ni neu, kudeaketak gehiago betetzen nau, behar dudalako ikustea zer egiten dudan; azkenean, hori bera motibazio bat da".

Une honetako egoera politikoa "interesgarria, behintzat" badela iritzi du, baina Larrañagak ez du politikara itzultzeko asmorik.★

arte eta dizainu ikastegia

Dibujo eta eskulanak
(haurrak) 17:30/19:00

Pintura 17:30/19:00

Talla 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3
669 414 025 - 943812808
matrikula urte guztian zabalik

KIRURI

JATETXE

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 58 08
Faxa.: 943 15 03 62

lora-etxea . . .

Kimu bat

ASTE BUKAERAN IREKIA

Azpeitia-Urrestilla Bidea 20730 AZPEITIA Tlfnoa.943 150085 www.kimubat.com

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

| | |
|----------------------|----------|
| Udaletxea | 15 72 00 |
| Udaltzaingoa | 15 13 13 |
| Suhiltzaileak | 112 |
| Azpeitia Lantzen | 15 71 83 |
| Iraurgi Lantzen | 85 11 00 |
| Nekazal Bulegoa | 81 24 85 |
| Iturritxiki Ludoteka | 15 11 79 |
| Zapo Txoko / GIB | 15 71 61 |
| INEM | 15 04 02 |
| Kiroldegia | 81 30 69 |
| Igerilekua | 81 41 21 |
| Ertzaintza-Azkoitia | 08 37 80 |
| Aitonena I | 81 51 71 |
| Aitonena II | 81 23 89 |
| Epaitegia | 02 51 91 |
| Ingurumen Etxea | 81 24 48 |

OSASUNA

| | |
|------------------------|----------|
| Anbulatorioa | 02 54 00 |
| Anbulator. larrialdiak | 02 54 01 |
| Eguneko zentroa | 15 74 96 |
| Asepeyo | 81 44 00 |
| Gurutze Gorria | 85 32 97 |
| DYA-Donostia | 46 46 22 |

KOMUNIKABIDEAK

| | |
|--------------------------------|--------------|
| Uztarrria | 15 03 58 |
| Hitza (Azpeitia) | 81 38 41 |
| Hitza (Zarautz) | 89 00 17 |
| Azpeitian Zer? | 81 11 00 |
| Berria | 943 30 40 30 |
| Gara | 943 31 69 99 |
| Noticias (berriemaileak) | 687 60 50 06 |
| DV (berriemaileak) | 610 81 29 12 |
| Argia | 943 37 15 45 |
| Nabarra | 948 22 71 25 |
| Arrate Irratia (berriemaileak) | 81 26 32 |
| Loiola Herri Irratia | 81 44 58 |
| Euskadi Irratia | 943 01 23 00 |
| Erlo Telebista (Azpeitia) | 81 53 35 |
| Izarraitz Telebista | 85 13 05 |
| ETB | 943 01 17 05 |

ALDERDI POLITIKOAK

| | |
|-----|----------|
| EAJ | 81 55 70 |
|-----|----------|

FARMAZIAK (OTSAILA)

EGUNEZ

| | | | | |
|-----------------------|---------------------|--------------------|---------------------------|-----------------------|
| 1-4-5-8-20-25-26 | 2-9-21-27 | 3-6-11-12-23-28-29 | 7-13-14-15-16-17-18-19-24 | 10-22 |
| Beristain (Azpeitia). | Alberdi (Azpeitia). | Jacome (Azpeitia). | Aranburu (Azpeitia). | Eizagirre (Azpeitia). |
| 943 811 949 | 943 815 974 | 943 080 258 | 943 811 350 | 943 811 274 |

GAUEZ

| | | | | | |
|--------------------|----------------------|------------------|------------------|---------------------|----------------------|
| 1-2-3-4-5-27-28-29 | 6-11-12-24 | 7-8-20-25-26 | 9-21-22 | 10-23 | 13-14-15-16-17-18-19 |
| Jacome (Azpeitia). | Gisasola (Azkoitia). | Ruiz (Azkoitia). | Jaen (Azkoitia). | Azpiazu (Azkoitia). | Aranburu (Azpeitia). |
| 943 080 258 | 943 851 235 | 943 851 966 | 943 850 660 | 943 852 989 | 943 811 350 |

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Otsailaren 29an izango dute hitzordua, 18:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

| | |
|---------------------------|----------|
| Hautetsi Independentistak | 15 72 00 |
| EA | 81 00 11 |
| EB-Aralar | 15 72 00 |

SINDIKATUAK

| | |
|------|----------|
| ELA | 81 34 46 |
| LAB | 15 13 56 |
| EHNE | 81 39 28 |

KULTURA-EUSKARA

| | |
|----------------------|--------------|
| Euskara Patronatoa | 81 45 18 |
| Udal Euskaltegia | 81 19 47 |
| AEK | 15 10 89 |
| EHE | 15 10 89 |
| Udal Liburutegia | 15 71 95 |
| Loiolako Liburutegia | 81 65 08 |
| Kontseilua | 943 59 12 00 |
| Bai Euskarari | 902 43 00 26 |

IKASTETXEAK

| | |
|----------------------|----------|
| Iraurgi | 81 02 10 |
| Iraurgi (Betharram) | 81 16 68 |
| Iraurgi (Milagrosa) | 81 63 80 |
| Iraurgi (Jesuitinak) | 81 22 49 |
| Ikasberri | 15 12 46 |
| Karmelo Etxegarai | 81 26 97 |
| Urola BHI | 15 02 28 |

BESTERIK

| | |
|--------------------------------------|-----------|
| UGLE (Urolako gay-lesbian.) | 273 posta |
| Xoxoteko aterpea | 58 10 07 |
| Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak | |

943 08 06 88

ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 08:30-14:00 ||| Larunbata: 09:00-12:30 **UDALTZAINGOA** ||| Egun osoz irekita egoten da **ANBULATEGIA** ||| Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste astegunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **UDAL LIBURUTEGIA** ||| Astegunak: 09:30-13:00, 16:00-20:00 ||| Larunbata: 09:30-13:00 ||| Udan, Gabonetan: 08:30-14:00 **ZAPO TXOKO** ||| Astearte-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



KONEXIO GEHIAGO.

La Guipuzcoana konpainiak eskaintzen duen Donostiarako autobus zerbitzua zabalagoa da, hau da, joan-etorriako autobus gehiago jarri dituzte, urtarrilaren 16tik.

GARRAIOA

| | |
|----------------|--------------|
| ALDALUR | 943 85 27 18 |
| EUSKO TREN | 902 54 32 10 |
| GUIPUZCOANA | 943 85 11 59 |
| PESA | 943 21 26 99 |
| PIPER ELKARTEA | 943 85 25 87 |
| TAXIAK | 943 81 13 07 |

||| autobusen ordutegi osoa:

www.uztarria.com/azpeitia/
autobusak

IDOIA EGIGUREN

urte bisustuan jaioa

“Lasai esango dinat aurten: ‘Gaur da nire urtebetetzea’”

Urteak lautik behin betetzen dituenetz, aurten jende askok zoriontzea eta opari ugari jasotzea espero du. 📌 Ainitze Agirrezabala

Zein dun zure adin bisestua?

Zazpi urte beteko ditinat hilaren 29an.

Noiz ospatzen ditun urteak?

Otsailaren 28an. Halere, beti zagon baten bat martxoaren 1ean zoriontzen nauena. Hala esan izan zidaten: ‘nik martxoaren 1ean zorionduko zaitut, otsailaren 28an artean jaio gabe zeunden-eta’. Azkenean, bietan; baina, ez batean, ez bestean. Halere, aurten jende askok zoriontzea espero dinat. Egun seinalatu denez jendea akordatu egiten dun.

Ospakizun berezirik egiten al dun lau urtean behin?

Niretzako otsailaren 29a egun berezia dun. Aurten lasai esan zezakenat: ‘gaur nire urtebetetze eguna da’. Etxekoei esana zienat aurten opari handiagoa egitea tokatzen zaiela.

Umetan ulertzen al hunan urte bisesturen kontua?

Ez dinat txikitako oroitzapen arrarorik. Ikastolara gozokiak hilaren 28an eramaten nitinan, eta merienda ere orduan egiten ninan.

Hi bezala bisurtean jaiotakorik ezaizun dun?

Koadrilako baten izeba ere urte bisestuan

jaioa dun. Elkar ez dinagu ezagutzen, baina egun horrek lotzen gaitin eta lagunaren bitartez elkar zoriontzen dinagu.

Urte bisustuek fama txarra diten. Hondamendi urteak omen ditun.

Hori hala badun, nire kinta guztiak zakarkin zorte txarra. Hori kontua dun. ‘Asteartea eta 13’ bezala. Ni ez naun superstiziosoa.

Bisustuan jaiotakoak bazkaltzeko elkartzen ditun, lau urtean behin. Inoiz joan al haiz? Joango al hintzanake?

Bazakinat lgeldon elkartzen direla, baina ez zaukanat lotura berezirik nire egun berean urteak egiten dituztenekin eta ez naun sekula izan eta joateko asmorik ere ez dinat. Akaso, egun horretan jaiotakoren batekin harreman estua banu, animatuko nindunake...

Jaiotegunarekin lotutako anekdotarik ba al dun?

Ama erditzeko jarri zela koinatari deitu zionan, ospitalera zihoala abisatzeko. ‘Gaur ez adi joan, 29 dun-eta!’, erantzun omen zionan. Bestalde, Facebook-ek ez din gogoratzen nire urtebetetze eguna eta sare sozialen bidez inork ez nain zoriontzen.*



1. Marmitako eguneko bazkarian, Getarian. 2. Ahizpa Amaia eta lehengusuekin, tarta janez urteak ospatzen. 3. Islandian, 2010ean.



eragin eta eragin

B

izikletak hazi gaitu. Hamar urte baino lehen, Enparan kalean behera, Erdi kalean gora, plazako kioskoari bueltaka, etxeko korridorean ezker-eskubi paretari kinki-kanka... Ziklista arinenaren taiman ibili nahi genuen, esprinterrak ginen orduan. Eta tarteko karrerak zirenean, Artxeneko parean jartzen ginen, ingurukoekin batera orroka: "Eragin, eragin! Sakatu, sakatu!" Gabika Perurena Elortza Rick Van Loy Jan Jansen Errandonea... Kas Fagor Karpuy Mercier... ziklista ginen haiei begira, haiek bezain karrerista.

Eta petrilean jarri eta astegun eguerdian, eta zapatuan, Landetatik zetozen langileei begira "Karrerista! Kotxea! Karrerista!" hots egiten genuen, zer zetorren bakoitzean. Eta karreristak ziren beti gehienak, bizikletan etxetik lanera, lanetik etxerakoan, goizean, eguerdian, bazkalondoan eta iluntzean, bi errobera gainean. Karreristak.

Eta hogeitau urte, eta beti bizikleta eskuan. Urraki igo behar zen, edo Azkarate, edo Zarauzko buelta Meagatik barrena... Eta Zumaira eskolak ematera edo Donostiara afaltzera ere, joan izan ginen bizikletan. Bizikleta beti.

Eta, Tourrak hozka egin zigunean, hartu bizikleta eta Getariara joango ginen, moilako tabernara, Frantziako telebistan ziklistak ikustera. Eta, hurrena, bizikletak furgonetan sartu eta Alpeetaraino joango ginen, Tourra bertatik bertara ikustera, hango Fignon eta Gorospe, Modesto Urretabizkaia Alpe D'Huezaren gure furgonetan sartuta, eta hau eta hura, eta kolonbiarrak, eta krono-igoera amaitu ondoren, Sean Kellyrekin batera –tarte batean, batera–, aldapan behera eta dena jendarmez inguratutik, eta haien motor urdinak.

Eta erorikoak bizikletan behin eta berriz eta askotan, baina nahiko bakan, zenbat ibili garen. Santamaña bizikleta eskuan igo –artean indarririk ez–, eta goian, guardia zibilak, garai hartako kontroletan, landroverra bate-



|||||||miel a. elustondo|||

|||Eta, berrogeita hamar urte, bizikletan segitzen dugu, honezkero inork kenduko ez digun bizioan

an, pare bat berde kanpoan, tebeoa letzen eta pipita jaten. Eta Santamañan behera, errebueltan, harri txintxorretan bizikletak ihes egin eta lehenengo eroriko hura, Beizamara baino lehen. Hango tabernan zertxobait garbitu, eta etxera, mailatuta. Izan ziren eroriko handiagoak, autoaren kapota gainera eroritakoak, baita ospitalera eraman gintuztenak ere, baina onik atera ginen.

Eta, berrogeita hamar urte, bizikletan segitzen dugu, honezkero inork kenduko ez digun bizioan. Goizean goizago, jantzi kaskoa, eta abiatzen gara, alabaren ondoan batzuetan, geure burua beste inor gabe beste batzuetan, eragin eta eragin, hiriko espaloietan –"Laster kaminotik ibili beharko dugu!" protesta oinezkoek–, kaminoetan –"alde hortik! bizikleta zahar hori!", beti da autozale erre bat jakulatorian–, eta hortxe, bizikletan, mundu

guztiaren kontra borrokan, semaforoek disimulatzen duten kaosaren erdian.✱



PAUSOZ
PAUSO
ETORKIZUNA
ERAIKITZEN



AZPEITIKO IKASTOLA - KARMELO ETXEGARAI

Euskal Herria, 50 · Tfnoa.: 943 81 26 97 · e-maila: 012320aa@hezkuntza.net
Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza



ZAINTZA ZERBITZUA

BI JANGELA

- Lehen Hezkuntzakoentzat
- Haur Hezkuntzakoentzat (logela eta guzti)

GARRAIOA

- Autobus bakoitza bere zainzailearekin



UROLA IKASTOLA
AZKOITIA - AZPEITIA BIH

UROLA IKASTOLA

Perdillegi, 3 · Tfnoa.: 943 15 02 28 · azpeitia@uroala.org · www.uroala.org
DBH, Batxilergoak eta Heziketa Zikloak



DBH

BATXILERGOAK

- Zientziak eta teknologia
- Giza eta gizarte zientziak

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Arotzeria eta altzarigintza
- Mekanizazioa

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Administrazioa eta finantzak
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa



*DBHOn

eurotex



**PINTURAK - BURDINDEGIA - BRIKOLAJEA - ELEKTRIZITATEA - SEGURTASUN BABESA
GILTZEN KOPIAK - PARKET-AK - GARBIKETARAKO MATERIALA - OSAGAIK**



Landeta Hiribidea, 8 - Azpeitia
Tel.: 943 81 25 66 · Mug. 607 58 89 13
www.landetabrikodenda.com



jarraitu gaitzazu facebook-en



CORE I3, 4GB RAM, DISKO GOGORRA 500GB

SAMSUNG

NVIDA GEFORCE 512MB, 15,6" WIN 7



XAGUA
+
MALETINA
OPARI

599€

BEZ
BARNE

ukabi
informatika

LA SALBE AUZOA 39 BEHEA
TEL. 943 15 01 01



innovadental



innovadental

Bisita gaitzazu:

José de Artetxe kalea, 5
(anbulatorioaren ondoan)
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

Edo deitu:

943 02 59 55

Euskadin, 2.000 INPLANTEtik gora

Eskatu presupuestoa eta kontsultatu gure finantzaketa!

implanteak

hartz-klinika
AZPEITIAn